

# Berriketan



IÑAKI SAGARNA • Historialaria

“Hemingway nire denbora-pasako  
ikerketa ildo bilakatu da”



## ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -  
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com  
www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea  
20820- DEBA (GIPUZKOA)

# adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA  
Hondartza kalea 13 DEBA  
T. 943 19 27 00

 [www.facebook.com/adatsileak](http://www.facebook.com/adatsileak)  
 @adatsileak



## URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

# Urlo

Aholkularitza  
Komunitateen  
kudeaketa  
Inmobiliaria

Tel. 943 192 471 • [urlo@urloasesoria.eus](mailto:urlo@urloasesoria.eus)  
Sokagin, 2 behea. Posta Kutxa 3. 20820 DEBA



janire & maitane  
ileapaindegia

Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31



## Zumardi

pentsioa

Tel.: 688 800 619  
[info@pensionzumardi.com](mailto:info@pensionzumardi.com)  
[www.pensionzumardi.com](http://www.pensionzumardi.com)



## ARENA BAR

# IZERBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

# ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09  
Hondartza kalea, 2  
Deba



## LAMARIANO

Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba  
943 19 12 52

Odontologoa  
MAITENA ARRIZABALAGA

Odontologoa  
NORA UNZETABARRENETXEA

HORTZ KLINIKA



Gipuzkoa Kalea 20, Zarautz 943 830 424 - 653 921 712



## Argazkilaria Ander Salegi

(argazki erreportajeak,  
photoshop-eko erretokeak...)

[andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)  
Tel: 685 703 843





# BERRIKETAN

## 296

2024ko ekaina

**Azaleko irudiaren egilea:**  
Nerea Bedialauneta Alkorta

## AURKIBIDEA



### 9 ALBISTEAK

Zabalik dago San Roke jaietako haurren danborradan izena emateko epea



### 13 ALBISTEAK

Egoitz Konde izango da aurrerantzean Amaiak Bat Futbol Klubeko presidente berria



### 14 ERREPORTAJEA

"15 urtean, banketxeen bulegoen erdiak itxi dituzte Debabarrenean" (Saretzen)



### 20 ELKARRIZKETA

Ernest Hemingway eta Euskal Herria kongresua hizpide Iñaki Sagarna historialariarekin



### 25 GURE GIRO

Ekainaren 26tik abuztuaren 2ra bitartean egingo da Gure Giro zikloa



### 28 AGENDA

Datozen asteotan egingo diren jarduerak eta ekimenak jaso ditugu atal honetan

**Zuhatz** euskara  
elkartea

**Berriketan**

#### ARGITARATZAILEA

Zuhatz Euskara Elkarte

#### HELBIDEA

Ifar kalea, 12 behe. 20820 (Deba)

#### TELEFONOAK

943 19 13 83 / 632 04 33 22

#### HEDABIDEAREN E-MAILA

[berriketan@zuhatz.com](mailto:berriketan@zuhatz.com)

#### ELKARTEAREN E-MAILA

[koordinatzailea@zuhatz.com](mailto:koordinatzailea@zuhatz.com)

#### ERREDAKZIOA

Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta

eta Alex Turrillas

#### KOORDINATZAILEA

Izaro Aulestiarte

#### PUBLIZITATEA

Joseba Escudero eta Alex Turrillas

#### LOGOTIPOAREN DISEINUA

Iñaki Elosua

#### MAKETAZIOA

Maku Oruezabal

#### TIRADA

1.400 ale

#### MAIZTASUNA

Hilabetekaria

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### LEGE GORDAILUA

SS/246/200

ISSN: 2171-7656

#### LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

#### Oharra:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak [berriketan@zuhatz.com](mailto:berriketan@zuhatz.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

# Gutunak



## Baso Bete Zientziaren lehen edizioa

Erdi betea ala erdi hutsa? Maiz galdetu ohi da basoa nola dagoen. Ez erdi betea, ez erdi hutsa: bete-betea egon da Kultur Elkarteko aretoa maiatzeko lau arratsaldetan. Baso Bete Zientzia ekimenaren baitan antolatutako hitzaldiak adi-adi eta ikusminez jarraitu dituzue zuetako askok. Hitzaldi horietan, herriko zientzialariek arlo ezberdinei buruzko gaiak aurkeztu dituzte herrikideen aurrean, pintxo-poterekin uztertuta.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu ekimen honi eman diozuen erantzun beroagatik. Herri honetan ezagutza zientifiko eta teknologikoarekiko interesa bizirik dagoela erakutsi duzue. Espero dugu zuen basoak zientziaz bete izana, zipriztindu behintzat, jakin-mina ere ase izana, zenituzten zalantzetako batzuk argituz eta, are garrantzitsuagoa dena, galdera berriak sortu izana ere espero dugu. Gure aldetik saiatu gara behintzat.

Erdi hutsik zeuden basoen artean sortutako ideia forma hartuz joan da pixkanaka, eta konturatzerako, Baso Bete Zientziaren lehenengo edizioari amaiera eman diogu. Plazera izan da gure ikerketa gaiak herrikideen aurrean aurkezteko eta azaltzeko aukera izatea, eta horretan ezinbestekoa izan da Kultur Elkartea. Aurtengoan hainbat gai jorratu ditugu: fabrikazio-gehigarria eta bere erronkak, sistema kanabinoidearen garrantzia, alzheimer gaixotasunaren prebentzioa, argiaren lokalizazioa nanoeskalan, ilustrazio zientifikoaren ahalmenak, fisika kuantikoa eta materialen propietateak, mikrobiotaren eragina ongizatean, adimen artifiziala, neutrinoen detekzioa...

Ea hurrengo edizioak zer dakarren, ekimenak izan duen harrera ikusita hau errepikatu beharra dago eta. Beraz, hurrengo ediziora arte!

**Baso Bete Zientzia jardunaldietako antolakuntza taldea**

## Negozia eten, alokairu publiko eta soziala orain!

Nork ez du bizi etxebizitza problematika bere azalean? Alokairuen prezioa etengabe igotzen ari da, eta gure herrian bizitzea gero eta zailagoa zaigu. Hipoteka aldakorra sinatuta, kuotak bikoiztu egin dizkigute, eta finkoa genuenok ere urte luzeak eman behar ditugu oraindik banketxeari eta zorrari lotuta. Etxebizitza publikoaren itxaron zerranda luzeegia da, eta eskaintza murriztegia. Pentsioaren zatirik handiena etxebizitza gastuetara bideratzen dugun bitartean, seme-alabak eta ilobak emantzipatu ezinik dabilta. Zer esanik ez ama bakarra garenok, beste herrialdeetatik etorri garenok, erroldarik ere ez dugunok.

Etxebizitza, negozio bide oparoa batzuentzat eta eskubide ukatua gehienontzat. Ez da bidezkoa.

Aterabideak kolektiboa izan behar duela sinetsita gaude. Etxebizitza eskubidea bermatzeko merkatuaren logikatik ateratzea ezinbestekoa da, eskubide unibertsala eta erreala izan dadin. Pertsonarik ez dadin egon aterpe duinik gabe. Eta badakigu eskubide guztiak lortu diren modu berean lortu beharko dugula hau ere: elkarrekin antolatuz, borroka eginez.

Etxejabeei presio eginez arazo asko konpondu daitezke; instituzioak interperlatuz, politika publikoak aldatu daitezke. Parke publikoa handitzea eta etxe hutsen zerga-petzea, besteak beste, borondate politiko kontua direlako.

Etxebizitzaren arazoan, lan gatazketan bezala, langileon bizi baldintzak hobetu, gure aldeko neurriak irabazi eta garaipenak lortzeko presio sindikala beharrezkoa izango da. Haien antolatuta daude. Guk ere antolatu beharra dugu. Etxebizitza publiko eta sozialaren alde. Alokairu eta hipoteken prezioak jaisteko. Funts putre, banketxe, etxe-agentzia eta etxejabeen espekulazioaren aurka. Higiezinaren patronalaren abusuari aurre egiteko. LAB borrokarako prest!

**LAB - Abiatu Asanblada**





IRAIA AGIRREZABALA

## Inteligentzia naturala

Eskerrak eman nahi dizkiet Deba-Itziarko Altxa Burua mugimenduko kideei. Ez bakarrik gure umeen pantailen erabileraren inguruko hitzaldi eta tailerrak erakunde desberdinekin lankidetzan antolatzearen, baita gure etxean behintzat helduon pantailen erabilera mahai gainean jartzearen ere. Ardura umei pasa aurretik, nork bere buruari begiratzea garrantzitsua dela iruditzen zait. Honi esker, etxean pantailen erabileraren inguruko hainbat kontuz hitz egin eta hausnartu ahal izan dugu. Esate baterako, mugikorra hainbeste gauzatarako erabilita, egun guztian haren menpe egotera behartzen dugu gure burua; goizeko iratzargailu funtzioetik hasita, erljutat ere erabiltzen dugu, eta agenda, argazki makina, laneko tresna, komunikatzeko tresna... bezala ere bai. Ez naiz sare sozialen erabiltzaile sutsua, baina gaur egun hiru puntu horiek luzeak izan daitezkeelakoan nago.

Gero eta gauza gehiago entzuten ditut adimen artifizialaren arriskuaz, baina erabileraren inguruan hausnartzen ez bada, salduak gaude, gure bizitza bere hatzparretan, edo agian hobe esanda kabletan lagatzen ari baikara. Inteligentzia naturala landu nahiko nuke; hausnarketa egin, erabakiak hartu eta gauzatu, hitzen eta ekintzen bidez. Iratzargailu bat erosiz hasi naiz, goizean zarataka hasten denean zartako bat eman ahal izateko moduko iratzargailua. Laino, sare eta aire konexioek errealitatekanporatzen naute sarri. Ea zartakoak hankak lurrean jartzen laguntzen didan.

Orain arte behintzat lurrera konektatuta mantentzeak errealitatea ikusten lagundu izan dit.

**"Inteligentzia naturala landu nahiko nuke; hausnarketa egin, erabakiak hartu eta gauzatu, hitzen eta ekintzen bidez"**

LIZ-ZK.: 3

**TaxiAlain Deba**

www.taxideba.eus

**636 135 008**  
alain@taxideba.eus

**MAIEDER** Eider Sampayo  
horts klinika Maialen Linazasoro

Inplanteak eta kirurgia	<b>Zarautz</b>
Periodontzia · Endodontzia	Kale Nagusia 9-1
Estetika eta zuriketak	943 13 32 69
Protesiak · Odontopediatria	722 81 56 60
Azido hialuronikoa	dental@maieder.com
Aho-aurregi eta ATM alterazioak	www.maieder.com

# Etxebizitzaren problematika gurean

DEBA BAILARAKO ETXEBIZITZA SINDIKATUA

**E**statistika ofizialen azken datuen arabera, Debako etxeen %10 hutsik egon arren (ia 300 etxebizitza), debarrok etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak ditugu. Hipoteken igoerak, horiek eskuratzeko baldintza betegaitzak eta etxebizitzaren gehiegizko prezioak direla eta, gero eta zailagoa da etxebizitza bat jabetzan eskuratzea.

Jabetzarako aukera murriztuz joan ahala, gero eta gehiago gara etxebizitzara sarbidea alokairu bidez ordaintzen dugunak. Horiek horrela, alokatutako etxeen kopurua %8,3tik %11,75era igo da 2008tik 2022ra bitartean. Ondorioz, alokairuaren merkatua gero eta saturatuago dago, eta prezioak gorantz doaz. 2013tik 2023ra, urtean 3.672 euro igo da alokairua Gipuzkoan, hau da, hilean 306 euro. Geruzarik pobreenak dira merkatu honetatik kanpo gelditzen ari direnak, infraetxeetan bizitzera edo kale egoerara kondenatuak.

Bizitzeko hain oinarrizkoa den zerbaiten beharrak baldintza txarreko eskaintzak areagotzen ditu eta etxejabeen aldetik gehiegikeria ezberdinak egiteko aukerak ere handitzen ditu. Ohikoak dira prezio igoera arbitrarioak, kontraturik gabeko alokairuak, udan kaleratua izatea etxeak alokairu turistikorako erabiltzeko edota jabeari dagozkion gastuak maizterrari ordainaraztea, besteak beste.

Egoera are gogorragoa izan daiteke etorkin askoren kasuan; izan ere, etorkin askok ez dute alokairu kontraturik eta, ondorioz, erroldarik ere ez, eta errolda prestazio sozialak jasotzeko oinarrizko baldintza bat da hemen. Gainera, posizio zaurgarri horretan, sekulako dirutza ordaindiz familia osoak gela bakarrean pilatuta bizi dira, kexatzeko ere aukerarik gabe, beldurrez.

## Etxegabetzeak ez dira gelditu

Joera horiek sendotzen doazen heinean, gobernutik hartzen diren erabakiek gero eta nabarmenago erakusten dute beren ezintasuna. Etxegabetzeak



**"Bizitzeko hain oinarrizkoa den zerbaiten beharrak baldintza txarreko eskaintzak areagotzen ditu eta etxejabeen aldetik gehiegikeria ezberdinak egiteko aukerak ere handitzen ditu"**

ez dira gelditu; are gehiago, Desokupa bezalako enpresak gero eta ohikoagoak dira. Legeek prezioen igoera mugatzen dute eta ez prezioa bera, alokairua ordaintzeko laguntzek jabeen irabaziak bermatzeko eta prezioak igotzeko balio dute soilik, eta pobrentzako ezartzen ari diren miseriazko etxebizitza sistemak ez du ez baldintza duinetan bizitzeko ematen, ez eta aurrera daramatzaten etxegabetzeen kopurua berdintzen ere.

## Kalitatezkoa, doakoa eta unibertsala

Honi guztiari aurre egiteko, elkartu eta antolatu gaitzen! Oinarrizko bizi baliabide bat aberastasun eta ezberdintasun sozialerako iturri gisa ikusten dutenen aurrean, guk argi dugu helburua: kalitatezko etxebizitza, doakoa eta unibertsala.

Antolatu etxebizitza sindikatuan. Harremanetarako: 67119 59 24 / [esindikatu\\_debabilara@gmail.com](mailto:esindikatu_debabilara@gmail.com).





RIKARDO IDIAKEZ

## Enegarren Eguna

Babalarazio positiboa egin berri dute joan den larunbatean ospatu zen Enegarren Egunaren antolatzaileek. Ekimenarekin bat egin zuten, halaber, Otsoko Bilkura osatzen duten galderdi politinko guztiek eta aho betez bozgoraipatu zuten ezarritako jeltzburu guztiak bete zirela.

Baldarrikapenez beteriko goiza izan zen larunbatekoa, "Demograziaren eta Anistasunaren Alde" lelopean, eta hainbat herritartalde batu zen antolatutako erkintzetara. Herriko bertsio-eskolako kideek eman zioten nahasiera saioari, soinu eta errima librean. Ostean, Abriel Garestiren "Harry eta Herri" olerki difamatua erreiztatu zuen irakurjale taldeko ordezkari batek.

Hamabietako meza aprobeztatuz, hamaiketako goxoa eskaini zuten herriko disoziedadeek, tradizioari jarraituz. Bitarte horretan, gainera, hainbat postu izan zituzten herritarrek eskura eta poltsikora: merkatu solidariola, esfinternet zerbitzu jasangarrien tailerra, herriko produktuak deserosteko aukera eta abar luzeegia.

Ekitaldiari segida emateko, *Galtzak Buruan* ekimeneko kide batek "Bizitzaren apantailak eta desapantailak" manifestu ekomunista irakurri zuen, paperetik. Ikuzkizunei bukaera emateko, juxtu-juxtu bada ere, herriko erraldoi-doeik eta dultzaingeruek esnatu zituzten ihesi joanak ez ziren haur-papurak.

Eguna azkentzeko, pankarta itsatsi zuten Enegarren Egunaren oroigarri: Euskal Gerria Hazkatu!

**"Baldarrikapenez  
beteriko goiza izan  
zen larunbatekoa,  
'Demograziaren eta  
Anistasunaren Alde'  
lelopean, eta hainbat  
herritartalde batu  
zen antolatutako  
erkintzetara"**



ekoðenda,  
dietetika,  
belardenda


**ZERBITZUAK:**

- \* Fisioterapia - Osteopatia
- \* Podologia
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista

Lersundi, 14      943 19 24 42      sasoiiko@hotmail.com



Ostolaza Kalea 25.  
20820 **DEBA** (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818



## 1945eko Gabonak

### Karmeldar Oinutsen zaharren egoitza eta eskola

Segur aski Hilario Allicac egina da argazkia. Irudiaren atzealdean Karmeldar Oinutsen ardurapean zegoen zaharren egoitza (Miquelez Fundazioa) ikus dezakegu, eta eskuin aldean, berriz, eskola. Amillagan zeuden bi eraikinak, hilerriaren ondoan, eta 1960ko hamarkadaren erdialdera arte egon ziren zabalik. Eskola hartan ibili ginenok oraindik gogoan dugu Eguberri eguneko afariaren ostean gurasoekin joaten ginela gauerdian komentuko kaperan egiten zen "oilar-mezara". Meza amaitzean, mojek ardo gozoa eta pastak eskaintzen zituzten.

Irudian, Santa Teresa ikastetxeko ikasle gazteak ageri dira, beraiek Gabonetarako egindako jaiotzarekin.

Behean, lehen lerroan, ezkerretik eskuinera: Begoña Aperribay, Pilar Beitia, Elena Andonegui, Karmele Albizu eta Angelita Egaña. Bigarren lerroan: Eskarne Egaña, Maria Pilar Urquiri, Iciar Urquiri, Mari Carmen Beristain, Mari Carmen Ampuero, Ana Maria Echeverria eta Mari Sol Andonegui. Atzean: Mari Carmen Unanue, Milagros Sarduy eta Montse Berasaluce.

Alex Turrillas Aranzeta



**ASKETA, S.L.**

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

**OFICINAS Y EXPOSICION:**  
 Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
 Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
 E-mail: asketa@telefonica.net  
 www.asketa.net

**ALMACÉN:**  
 Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
 20850 MENDARO (Gipuzkoa)



**K21**  
 KALITATEA  
Enpresa Registrada Nº 21051048  
 NIVEL 2



**Bar LOREA**

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095



## Zabalik dago San Roke festetako Umeen Eguneko danborradan izena emateko epea



Arg.: JOXERRA LARRAÑAGA

San Roke jaietan tradizio handiko ekitaldia izan ohi da Umeen Eguneko danborrada. Aurten ere abuztuaren 15ean izango da hitzordua, baina arratsaldean (17:30ean), eta bertan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago.

Internet bidez bakarrik eman daiteke izena, uztailaren 8a baino lehen. Interesa dutenek [labur.eus/umeendanborrada](http://labur.eus/umeendanborrada) estekan dagoen formularioa bete beharko dute, adina kontuan hartu eta zein postutan parte hartu nahi duten adieraziz.

Umeen Eguna antolatzeaz arduratzen den herritar taldeak, gainera, egun horretako ekintzak aurrera eramateko boluntarioak behar dituela jakinarazi du; laguntzeko prest daudenean danborradan izena emateko erabilitako inprimaki bera bete beharko dute.

### Entseguak

Ohi bezala, entseguak ere egingo dituzte danborrada txukun prestatze aldera. Uztailaren 22an izango da lehena, 19:00etan, Ifar kaleko Luzaro eskolan. Uztailaren 29an, eta abuztuaren 5ean eta 12an izango dira hurrengo entseguak, toki eta ordu berean.

## 500 sinadura bildu dituzte liburutegiko arautegia moldatzeko eskatuz



Liburutegia Denontzat Taldeak amaitutzat eman du udal liburutegiko araudia aldatzeko eskatuz apirilean abiatu zuen sinadura bilketa. 500 atxikimendu jaso ondoren, taldea pozik azaldu da lortu duen babesarekin.

Orain, ordea, herritarren eskaera hori aintzat har dezala eskatu nahi diote udalari. "Bien bitartean, guk denontzako liburutegia eskatzen eta elkarbizitza erdigunean jartzen jarraituko dugu. Izan ere, liburutegiaren funtzionamendua hobetzea da asmoa; hau da, herritar guztien beharrak aseko dituen liburutegia izatea", nabarmendu dute.

Norbanakoez ez ezik, Debako eta Itziarko Zubi Guraso Elkarteak, Debako Kontalariek, Altxa Burua Elkarteak, Senzala Elkarteak, DIT Feministak, Debako Pentsiodunek eta Burdin Kurutz Mendi Taldeak ere bat egin dute taldearen eskakizunekin. Gaineratu dutenez, halaber, haur eta gazte literaturan eta beste hainbat esparrutan "erreferente" diren hainbatek ere babestu dute ekimena. Horien artean daude Ana Apika, Karla Fernandez de Ganboa, Maribel Aiertza, Beatriz Egizabal eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak.

**Informatika**  
Tresneria  
informatikoa



**Elektronika**  
Osagai  
elektronikoak

**Informatika JLC Elektronika**  
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83  
Faxa: 943 19 18 36  
Mugikorra: 686 939 601

[informatikajlc@informatikajlc.com](mailto:informatikajlc@informatikajlc.com)



**atari**  
INMOBILIARIA

943 19 22 63  
[atari@atarideba.com](mailto:atari@atarideba.com)  
[www.atarideba.com](http://www.atarideba.com)



**ieraenea**  
ekodenda

"maite ditut nire/gure basterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA  
Telf: 913 53 95 20- E-mail: [ieraenea@gmail.com](mailto:ieraenea@gmail.com)



**marruecos**  
viajes y tours

Neurrira egindako  
bidaiak Marokora  
**607 76 11 46**  
[www.viajesytoursmarruecos.com](http://www.viajesytoursmarruecos.com)

# Palestinarekiko elkartasun oihuak ozen entzun dira Deban

Ikusi eguneko argazki guztiak ondorengo QR kodea irakurri:



Musika, dantza, gastronomia, bertsoak, antzerkia, poesia... denetarik egon zen, baina batez ere gogoeta, sentsibilizazioa eta elkartasun mezuak izan ziren nagusi Deba-Palestina Herri

Ekimenak antolatutako Elkartasun Egunean.

Dozenaka lagun elkartu ziren joan den ekainaren Iean Plaza Zaharraren bueltan egindako ekintzetan, eta pozik azaldu dira

antolatzaileak. "Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu ekitaldian parte hartu zuten eragile eta herritar guztiei. Debako herriak argi utzi du bere elkartasuna, bere gizatasuna", azpimarratu dute.

## Ukrainako hiru haurrek Deban igaroko dute uda



Chernobil Elkartearen Atsedean Programa Bereziari esker, Txernobyl inguruko 107 adingabe etorriko dira udan Hego Euskal Herrira. Elkarteko kideek emandako datuen arabera, Gipuzkoara iritsiko diren 49 haurretatik

hiruk Deban egingo dute egonaldia, udako oporrak haiekin

partekatuzko prest dauden harrera familiei esker.

Arabian, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan hartuko dituzten haur horiek Txernobylgo istripu nuklearrak kutsatutako eremutik gertu bizi dira eta, programari esker, uda "ezberdin" batez gozatzeko aukera izango dute. Oraindik ere erradiazioak eragina duen eremutik irten (1986ko apirilaren 26an jazo zen istripu nuklearra)

eta, besteak beste, elikagai osasuntsuagoak jan ahal izango dituzte, baita osasun-azterketak egin ere.

"Ukraina suntsitzen" ari den gerra kontuan hartuta, gurera etorriko diren umeek bolada batez "leku seguru eta lasai batean" bizitzeko aukera izango dutela diote elkarteko kideek. "Lehen, kutsaduratik eta pobreziatik ihesi etortzen ziren. Orain, ordea, arazo horiei gerra gehitu zaie. Horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu adingabe horiei arnasa ematea, aldi baterako bada ere, gerratik eta haren ondorioetatik urrun egon daitezen".

### Bigarren eskuko azoka

Herritar talde batek, gainera, bigarren eskuko azoka bat antolatu du ekainaren 22rako eta 23rako; 11:00etatik 15:00etara egongo da zabalik, udaletxe azpiko arkupeetan, eta lortutako diru guztia Ukrainara bideratuko dutela iragarri dute.

# El Salvadorren garapen proiektuak sustatzen jarraitzen dute, Debako Udalaren laguntzaz

El Salvador Elkartasuna Gobernu Kanpoko Erakundearen Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ordezkariak 2021ean hasi zen bidea egiten, eta ordutik garapenerako lankidetzako proiektu ezberdinak abiarazi ditu Erdialdeko Amerikako herrialde horretan. Bestek beste, San Esteban Catarinako udalerrian (San Vicente departamenduan) emakumeak ahalduentzako eta haien osasun sexualean eta ugalketa eskubideetan eragiteko helburuz dihardute lanean. "Komunitate horietako emakumeak ahalduentzen eta antolatzen saiatzen gara; bestela, etxean geratu beharko lukete, gizonen menpe", dio Miren Odriozola elkartearen arduradunak.

Azken hiru urteotan proiektu ezberdinak gauzatu ahal izan dituzte eta hori guztia, hein handi batean, zenbait udalaren emandako laguntzari esker izan da posible. Babes ekonomikoa ematen duten udal horien artean dago, hain justu, Debakoa; 2023tik laguntzen du diruz. "2021ean eta 2022an Azpeitiko Udalean soilik eskatu genuen dirulaguntza, baina komunitate gehiagotan laguntzeko esperantzarekin, proiektu handiago bat osatu genuen 2023rako. Horiek hala, Debako eta Azkoitiko udalaren ere aurkeztu genuen proposamena, eta horien dirulaguntza ere jaso genuen", azaldu du Odriozolak.

## Ia 9.000 euro

2023an, zehazki, 31.849 euroko aurrekontua izan zuten, eta horietatik 8.830 euro Debako Udalak jarri zituen; gainontzeko kopurua Azpeitiko Udalak (15.000 euro),



Azkoitiko Udalak (5.000 euro) eta El Salvadorreko Pro-Vida elkarteak (3.019 euro) ipini zuten. "Udalen eta elkartearen bazkideen laguntzari esker (hogei bat bazkide ditugu Deban), adibidez, ehunka emakumeri zitologiak eta mamografiak egin genizkien. Izan ere, hango biztanleek ez dute nahikoa baliabide horretarako. Herrialdean arazo handia dute umetoki-lepoko minbiziarekin, emakumeen %30ek baino gehiagok pairatu dute, eta neurri horien helburua prebentzioa da".

Dagoeneko ezarri dituzte 2024rako erronkak eta, iragarri dutenez, ildo beretik eta antzeko proiektuetan lan egiten jarraitu nahi dute. "Landa eremuko emakumeen aldeko proiektu horiek komunitate gehiagotara hedatzea da helburua. Horregatik, aurrekontu handiagoa aurkeztu dugu eta, beraz, udal gehiagoren laguntza beharko da". Bide horretan, orain arte babes ekonomikoa ematen duten hiru udalaren ez ezik, Tolosakoan ere eskaria egiteko intentzioa dutela azaldu dute. Proiektua hedatu ahal izateko 45.000 euro lortu nahi dituzte eta, deialdia argitaratzen denean, Deban ere egingo dute eskaera. "Ea lau udalaren aurreikusitako kopurua lortzen dugun".

## ITURLAN, S.L.

### Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tfno. Mugikorra: 635 717 732  
Tfno.-Fax: 943 192 553  
fontaneriaiturlan@iturlan.com



Kolegiatu zkia.: 20001123

## Amaia Esnaola

ODONTOLOGIA

Fermin Calbeton 19- 3 ezk. Eibar  
943 20 72 17 | 660 42 28 08  
amaia@esnaolaodontologia.com



## Debadabak izan duen harrera ona ikusita, festa errepikatzeko gogoz daude antolatzaileak



Eguraldiak baldintzatu zuen joan den ekainaren 7an eta 8an ospatutako Debadaba Festa, baina, hala ere, balorazio "oso ona" egin dute antolatzaileek. "Gustura gaude emaitzarekin".

Iazko festaren ildo beretik, aurretik ere ekintza ugari antolatu dituzte bi eguneko egitarauaren baitan, eta "pozik" azaldu dira herritarrek emandako erantzunarekin. "Giro ona nagusitu zen bi egunetan. Beraz, eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen; ezin dugu besterik esan. Jarduera batzuetan izandako parte-hartzea ikusita, hausnarketa egin eta datorren

urtera begira seguruenik moldaketa batzuk proposatu beharko ditugu, baina ziur esan dezakegu festa berriro antolatuko dugula. Hortaz, hurrengo hitzordurako prestatuko ditugun ekintzetan ere elkar ikustea espero dugu", gaineratu dute.

Aurtengo egitarauan parte hartu duten herritar guztiei eskerrak ematearekin batera, surfa, kirola, aisialdia eta kultura uztartzen dituen jaialdia bigarren bezala posible egin duten eragile, boluntario eta norbanako guztientzako ere esker oneko hitzak dituzte antolatzaileek. "Jende askori eman behar dizkiogu eskerrak, zerrenda oso luzea da".

## Zabalik dago abuztuaren egingo den Itziar Trail probarako izen-ematea

Itziar Trail lasterketa Kopraixen egitarauaren barruan egingo da aurten ere. Antolatzaileek iragarri bezala, hain zuzen, 13,9 kilometroko luzera izango duen proba abuztuaren 3an jokatu da, 16:00etan hasita, eta izen-ematea zabalik dago jadanik.

Azaldu dutenez, Internet bidez eman daiteke lasterketan parte hartzeko izena. Interesa dutenek [kirolprobak.com](http://kirolprobak.com) atarira jo beharko dute; epea abuztuaren 1ean amaitzen da.

## Elgoibarren egingo dute Debabarreneko Orientazio Raida, irailaren 28an

Morkaiko Raid Taldeak jakinarazi duenez, aurten Elgoibar izango da Debabarrena VIII. Orientazio Raidaren egoitza. Hitzordua irailaren 28rako jarri dute eta izen-ematea zabalik dago.

Abentura raidean parte hartzeko interesa dutenek [kirolprobak.com](http://kirolprobak.com) webgunera jo beharko dute izena emateko. Familia raidean parte hartu nahi dutenek, bestalde, [labur.eus/debabarrenaraid](http://labur.eus/debabarrenaraid) atari digitalean eskuragai dagoen inprimakia bete beharko dute.

**Arteondo**  
Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34

**SUKIA**  
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)

## Amaiak Batek zuzendaritza talde berria du, Egoitz Konde gidari dela



Talde bakarra aurkeztu da Amaiak Bateko zuzendaritza batzordearen ardura bere gain hartzeko prest eta, ondorioz, Egoitz Konde lehendakari izango duen talde exekutiboak zuzenduko du kluba aurrerantzean.

Kondek "asmo onenekin eta ilusioz" heldu dio zeregin berriari, eta azaldu du "aurrekoek egindako

lan onari" jarraipena ematea duela helburu. Bide horretan, talde exekutiboan dauden Josu Varela (lehendakariordea), Paul Garcia (diruzaina), Iñaki Aristi (idazkaria) eta Aiert Zinkunegi (kirol arduraduna) izango ditu bidelagun, "baita beste hainbat laguntzaile ere".

## Parisko Paralinpiar Jokoetan parte hartzeko aukerekin jarraitzen du oraindik ere Arrietak

Espainiako Paralinpiar Batzordeak Paralinpiar Jokoetarako aurrez hautatuta dauden 250 kirolariaren izenak ezagutarazi ditu, eta horien artean dago Deban bizi den Amagoia Arrieta.

Bere lehen Paralinpiar Jokoetan parte hartzeko aukera gero eta gertuago baldin badu ere, uztailaren

15era arte itxaron beharko du txartela bermatuta duen jakiteko; egun horretan argitaratuko dute Nazioarteko Batzorde Paralinpikoak, Espainiako Batzorde Paralinpikoak eta Espainiako Kirol Federazioek ezarritako sailkapen-irizpideei jarraituz osatutako parte hartzaileen behin betiko zerrenda.

## Ekainaren 29an jokatuko dute X. Flysch Beltza igeriketa zeharkaldia

Eibar Igerixan Kirol Klubak antolatuta, Flysch Beltza igeriketa zeharkaldi ezaguna jokatuko dute ekainaren 29an. Aurten, gainera, berritasunekin dator kirol hitzordua. Izan ere, bi ibilbide izan ordez, ibilbide bakarra izango duela azaldu dute antolatzaileek.

Proban parte hartzen dutenek Mutrikuko portua eta Debako hondartza batuko dituen 3.000 metroko ibilbidea osatu beharko dute, 11:30ean abiatuta.

Ekainaren 25a da izena emateko azken eguna eta interesa dutenek *kronoak.com* webgunera jo beharko dute. Adinez nagusi den edonork izango du parte hartzeko aukera (federatuta egon ala ez), eta probak gehienez ere 500 parte hartzaile izango ditu aurten.

## Dortsalak eta autobusak

Antolakuntzak iragarri duenez, Deban jaso beharko dira dortsalak; hondartzaren ondoan horretarako jarritako gunean banatuko dituzte, 08:00etatik aurrera.

Nahi dutenek, gainera, Debatik Mutrikuko irteera punturaino joateko autobus zerbitzu berezia izango dute erabilgarri. Lehenengo autobusa 09:30ean irtengo da eta azkena, berriz, 10:45ean.

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

Hondartza ondoan  
Urte gutxian zabalik

Nafarroa Plaza • Tel.: 943 192 576  
20820 DEBA

Sukalde eta etxe altzarien  
erakusketa izugarria  
3000m<sup>2</sup>

Itziariko gaina  
T.: 943 19 91 00  
F.: 943 19 91 01  
ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

endaneta@mueblesendaneta.com  
[www.mueblesendaneta.com](http://www.mueblesendaneta.com)

# 15 urtean, bulegoen erdiak itxi dituzte

Urtez urte, bankuek geroz eta bulego gutxiago dituzte Euskal Herrian, eta Debabarrena ez da salbuespena. 2008tik, 30 bulego itxi dituzte bailaran eta horietako bat Deban (Sabadell Guipuzcoano). Zabalik dauden bulegoetan zerbitzuak murriztu dituzte, batzuetan gehiago eta beste batzuetan gutxiago. Herritarrek eta merkatariak kexu dira eta bankuek digitalizazioa aipatzen dute arrazoi nagusi gisa.

**Testua: Ubane Madera eta Egoitz Unamuno**



**2** 008tik, nabarmen gutxituz joan dira banketxeak eta haien zerbitzuak Hego Euskal Herrian (EAE eta Nafarroa).

Espainiako Bankuaren datuen arabera, Hego Euskal Herriak banku bulegoen ia erdia galdu du azken hamabost urteotan: 2.673 ziren 2008an eta 1.374, berriz, 2023an. Hala, 1.299 bulego gutxiago daude, eta jaitsiera %48,57koa izan da. EAERI dagokionean, gaur egun 2008an baino 1.034 bulego gutxiago daude, beraz, kopurua %51 murriztu da.

## Debabarrenean 30 bulego gutxiago

Debabarrena ez da salbuespena jaitsiera horretan eta ehunekoak aurrez aipatutakoen oso antzekoak dira. Izan ere, 2008tik 2023ra bitartean, Mallabitik Mutrikura bitarteko zortzi udalerrietako banketxeen bulego kopuruaren ia erdia itxi dute (ikus alboko orrialdeko grafikoa). 2008an, 65 bulego zeuden eta, azken datuen arabera (2023), 35 bulego daude, 30 gutxiago. Jaitsiera %46koa izan da bailaran.

Inguruko eskualdeetan ere itxi dituzte bulegoak. Debagoienean jaitsiera Debabarrenean baino apalagoa izan da, %36koa, eta Durangaldean, berriz, zerbait altuagoa, %49koa.





Tokikomek eta EITBk datu kazetaritza sustatzeko elkarlanean garatzen diharduten proiektua da Saretzen.

### Eibarren itxi dituzte gehien

Bailarako herriz herriko datuei erreparatuta (ikus taula hurrengo orrialdean), herririk populatuena dira bulego kopuruan beherakadarik handiena izan dutenak, eta horien artean Eibar izan da bulego gehien galdu dituen. 2008an, 28 bulego zeuden Eibarren eta gaur egun 11 bulego baino ez daude; hala, azken hamabost urteetan, 10.000 biztanleko 10,2 bulego izatetik, 4 bulego izatera pasatu da. Bigarren jaitsierarik handiena Elgoibarren gertatu da, eskualdean bulego gehien izan dituen herrian, hain zuzen. 2008an, Elgoibarrek 12 bulego zituen eta hamabost urteren buruan 7 izatera pasatu da, bidean 5 bulego itxi eta gero. Ondorioz, 10.000 biztanleko 10,9 bulego izatetik, 6,1 bulego izatera pasatu da. Gauza bera gertatu da Ermuan ere, 11 bulegotik 5 itxi egin dituzte eta orain 6 bulego dituzte. Momentu honetan, 10.000 biztanleko bulego kopururik txikiena duen herria da Ermua, 3,8rekin.

### Mutrikun eta Deban antzera

Jaitsiera ez da horren nabarmena izan tamainaertaineko herrietan eta zenbait herri txikitan. Esaterako, Mutrikun eta Mendaron duela 16 urte zegoen bulego kopuru berbera dago gaur egun, lau Mutrikun eta bakarra Mendaron.

Deban, berriz, bakarra itxi dute azken urteotan eta bost izatetik lau izatera pasatu dira -Itziarren, ostera, ez dago bulegorik, eta kutzazain bakarra dago (Kutzabankena) Kalebarrenean-. Horrela, momentu honetan, Mutrikuk eta Debak dute eskualdean 10.000 biztanleko kopururik handiena, 7,5 eta 7,4, hurrenez hurren. Mallabian, berriz, lehen ez zegoen bulegorik eta orain ere ez dago.


### Soraluzen erdiak itxi

Soraluzeri dagokionean, jaitsiera Debarreneneko batez bestekoa baino lau puntu altuagoa izan da, %50ekoa, hamabost urteotan bulego kopurua justu erdira jaitsi baita. 2008an, 4 bulego zeuden herrian; gaur egun, berriz, 2 bulego besterik ez daude, Kutzabankena eta Laboral Kutzarena. Ondorioz, Soraluzen 10.000 biztanleko tasa 5,3koa da.

### Murrizketak leihatilako zerbitzuan

Herrian bulegoak mantendu dituzten bankuek ere, gehiago edo gutxiago, murriztu egin dituzte herritarrei leihatilan eskaintzen dizkieten zenbait zerbitzu, batez ere eguneroko diru mugimendu arruntekin lotutakoak: transferentziak, errezioben ordainketak, dirua ateratzea eta sartzea, kanbioak...










### Bulego kopuruaren bilakaera Debarrenean



**2008tik 2023ra bitartean, Mallabitik Mutrikura bitarteko zortzi udalerrietako banketxeen bulego kopuruaren ia erdia itxi dute. 2008an, 65 bulego zeuden eta, azken datuen arabera, 35 bulego daude orain, 30 gutxiago.**

Adibidez, Kutzabankek gaur egun astean hiru egunetan ematen du eragiketa horiek egin ahal izateko aukera (astelehen, asteazken eta ostiraletan) eta ordutegi zehatz batean: 08:30etik 11:00etara. Laboral Kutzak leihatilako zerbitzu zabalagoa dauka, asteko bost egunetan ematen baitu arreta; han ere ordutegi murriztua dute, baina zabalxeagoa: 08:30etik 12:00etara (bezero ez direnentzako, 08:30etik 10:00etara). BBVAren kasuan, astelehenetik ostiralera

## Banketxeen bulego kopurua entitateen eta herrien arabera

										2023	2015
Deba	1	1	0	0	1	1	0	0	0	4	5
Eibar	2	2	1	1	1	1	1	1	1	11	20
Elgoibar	1	1	1	1	1	1	0	1	0	7	9
Ermua	1	1	1	1	1	1	0	0	0	6	9
Mallabia	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Mendaro	0	1	0	0	0	0	0	0	0	1	1
Mutriku	1	1	0	0	0	1	1	0	0	4	4
Soraluze	1	1	0	0	0	0	0	0	0	2	4
<b>2023</b>	<b>7</b>	<b>8</b>	<b>3</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>2</b>	<b>2</b>	<b>1</b>	<b>35</b>	
<b>2015</b>	9	13	3	5	4	6	8	3	1		52

## Bulegoak mantendu dituzten bankuek ere murriztu egin dituzte herritarrei leihatilan eskaintzen dizkieten zenbait zerbitzu

eskaintzen dute zerbitzua, 08:30etik 11:00etara, eta CaixaBankek dauka gaur egun ordutegi zabal eta malguena Deban; azaldu dutenez, edozein mugimendu egiteko aukera ematen dute leihatilan, astelehenetik ostiralera, 08:15etik 14:30era bitartean.

Aipatutako ordutegiak uda sasoikoak dira. Banketxe batzuek arreta eta zerbitzu zabalagoa izan ohi dute neguan, batzuetan arratsalde ere jarduten baitira.

### Digitalizazioaren ondorio

Lina Amenabar Soraluzeko Laboral Kutxako zuzendariaren esanetan (ikus elkarriketa hurrengo orrialdean), digitalizazioak "ikaragarri" aldatu du banketxeen lan egiteko modua, batez ere mugikorrek bezeroei "online bankaren bitartez kontsultak eta eragiketak egiteko aukera" eman dietetik. Azaldu duenez, gaur egun, bulegoetako lana bestelako zerbitzu batzuk eskaintzera ari dira bideratzen gero

eta gehiago: "Aholkularitza, etxebizitza bat erostea, laneko inbertsioren bat, aseguru bat kontratatzea...". Leihatilako zerbitzuari dagokionean, Amenabarrek dio "murriztapenen" barruan, Laboral Kutxan bezeroei laguntzen ahalegintzen direla: "Trekita gauden bitartean, etortzen den norbaiti ezin badiogu leihatilatik dirua eskura eman, kutzazain bidez egiten laguntzen diogu, transferentziak guk egiten dizkiogu edo horretan laguntzen diogu...". Ez du uste etorkizunean Laboral Kutxak herrietako bulegoak itxiko dituenik, bere ustez "arreta kanal oso inportantea" direlako eta "bertan bezeroarentzako balio erantsia erakutsi daitekeelako".

Kutxabanken kasuan, Garikoitz Furonesek adierazi du leihatilako ordutegiz kanpo doazen bezeroei laguntzen "ahalegintzen" direla. Erreportaje hau osatzeko beste zenbait galdera ere bideratu zaizkio Kutxabanki, baina oraingoz, ez dugu erantzunik jaso.

### Lokalak hutsik

Bankuen bulegoak ixteak zerbitzuetan ez ezik, herriko paisaian ere izan du eragina. Historikoki bankuek herrietako kale nagusietan jarri izan dituzte beren bulegoak eta Deban ere halaxe izan da. Gaur egun, Sabadell Guipuzcoano zenaren bulegoa hutsik dago Gudarien Plazan. 2021ean itxi zuten, entitateak ezarri zuten ERE baten testuinguruan. Ordutik, lokala hutsik dago eta gaur-gaurkoz salgai dago Interneten.

# “Guretzat, arreta kanal inportantea da bulegoa”

LINA AMENABAR • Soraluzeko Laboral Kutxako zuzendaria



## Noiz ekin zion Laboral Kutxak digitalizazio prozesuari?

Urte dezente dira. Lehenengo ordenagailua ezarri genuenetik, gure lana ikaragarri aldatu da. Baina gure negozioaren bilakaeran benetako iraultza ekarri duena smartphonea izan da, bezeroari banka digitalaren bitartez kontuak kontsultatzeko eta eragiketak egiteko aukera eman baitio.

Orain, berrogeita bost urtetik beherako jendea ez da bulegoan azaldu ere egiten, beste mota bateko beharra daukanera arte: aholkularitza, etxebizitza bat erostea, laneko inbertsioren bat, aseguru bat kontratatzea... Zerbitzuen abanikoa asko zabaldu da eta bulegoetako lana, batez ere, horrelako zereginetara ari da bideratzen. **Azken urteotan kexa asko entzun dira banketxeek ezarri dituzten murrizketak direla eta. Oro har, Laboral Kutxa nola ari da gai hau kudeatzen?**

Esango nuke Laboral Kutxak ez duela bere bulegoa herri batean ere desagerrarazi. Beste gauza bat da herri batean bulego bat baino gehiago izatea eta horietako bat edo beste itxi izana. Zerbitzu batzuk murriztu dira, baina zein zerbitzu dira murriztu ditugunak? Gure lana asko aldatu da. Orain asko funtzionatzen dugu hitzorduekin eta, bezeroari erantzun egoki bat emateko, gure lana beste era batera egin behar dugu. Gure ordutegiak murriztuta daude kutzako zerbitzuentzako, baina aholkularitza zerbitzuentzako goizeko 08:30etik 14:30era gu hemen gaude. Eta irekita gauden bitartean, etortzen den norbait ezin badiogu leihatilatik dirua eskura eman, kutxazain bidez egiten laguntzen diogu, transferentziak guk egiten dizkiogu edo horretan laguntzen diogu... Murriztapen horien barruan, erantzun bat ematen ahalegintzen gara.

Batzuetan gertatzen da norbait etortzea bulegora eta pentsatzea gu libre gaudela, baina agian ez gaude libre; igual bilera birtual batean nago bezero batekin, agian bezeroak ezin duelako bulegora zuzenean etorri. Nik bezero batekin hitzordu bat ipini dezaket eta PC bidez elkarrizketak online egin, segurtasun osoz.

Bestalde, kexa asko jasotzen ditugu falta diren entitateetako bezeroengandik. Hau da, gure bezero



ez diren pertsona asko etortzen zaizkigu bere entitateari dagozkion zerbitzuak guk emateko eskatzera, baina horiek ez ditugu guri egindako kexatzat hartzen. Laboral Kutxan herritarrekiko hurbilak izaten ahalegintzen gara, baina ezin dena pretenditu da bezero ez denari bezero denari ematen dizkiogun zerbitzu berak ematea, adibidez, erreziiboak kobratzerakoan eta.

## Etorkizuna herrietako bulegorik gabe imajinatu behar dugu?

Ez, pentsatu nahi nuke ezetz. Gure espektatiba ez da bulegoak ixten jarraitzea. Gu Euskadin gaude batez ere, baina lurralde honetatik kanpo ere baditugu bulego batzuk eta presentzia gutxitu beharrean handitzen ari da berriz. Guretzat, arreta kanal oso inportantea da bulegoa, bertan bezeroarentzako balio erantsia erakutsi daitekeelako.



## Mendatako ikasleek odola ematearen "garrantziaz eta beharraz" hausnartu dute

Lan Komunitarioa ikasgaiaren baitan, Mendata BHIko DBH1eko eta DBH4ko ikasleek odola ematearen "garrantziaz eta beharraz" gogoeta egiteko aukera izan dute berriki. Herriko Odol Emaileen elkarteko kideek zehaztu dutenez, hain zuzen, maiatzeko odol ematea baino lehentxeago Euskadiko Odol Emaileen Elkarteko kideetako batek hitzaldi bat eman zien ikasleei eta, bertan, hainbat zalantza argitzeko tartea izan zuten.

"Bukaeran, gainera, erronka moduko bat proposatu genien. Duten adinagatik ezin dute odolik eman, baina, abian jarritako ekimenari esker, beren inguruko helduak gonbidatu zituzten hori egitera. Txartel batzuk prestatu zituzten eta erronkarekin bat egin zuten senideek txartel horiek aurkeztu behar zituzten gero. Horrela, ikasleen deialdiak izan zuen eraginaz ohartu ahal izan ginen eta, zeharka bada ere, ikasleek ere egitasmoan inplikatzeko aukera izan zuten", azaldu dute.



Horrez gain, Odol Emaileen elkarteak herrian egiten duen lana ere gertutik ezagutu ahal izan dute ikasleek. "Ekainaren 14an, Odol Emailearen Nazioarteko Egunarekin bat eginda, urte luzez elkartearen ardura izan duten Arantza Iriondo, Martina Zubizarreta eta Mari Carmen Lazkano izan ziren institutuan. Ikasleek egindako galderei erantzuten eta zalantzak argitzen aritu ziren eta, saioa amaitzean, urteetan egindako lanari aitortza egin zieten gazteek; bertso batzuk kantatu eta lore-sortak eman zizkieten opari".

## Ekimenez beteriko asteak, Arbilen eskutik

Arbil Elkarte Sozialaren ekaineko egitarauarekin bat egin dutenek askotariko ekintzez gozatzeko aukera izan dute asteotan ere.

Baionara egindako irteerarekin (ekainaren 5ean) eta Sasiolaren historiari buruzko hitzaldiarekin (hilaren 6an) ekin zieten hilabeteko proposamenei. Gainera, urteroko hitzorduek ere ez dute hutsik egin.

Hilaren 13an, adibidez, San Antonio Eguna ospatu zuten Sasiolan. Ohiturari jarraituz, bertan elizkizun berezia egin zuten eta, ondoren, hamarretakoa dastatu ahal izan zuten partaideek.

Hilaren 16an, berriz, aurten 80 urte bete dituzten bazkideak omendu zituzten. Guztira, 78 bazkide elkartu ziren bazkarian.





**AUKERA**  
INMOBILIARIA

[www.aukera-inmobiliaria.com](http://www.aukera-inmobiliaria.com)  
Aukerarik onena!

943 12 13 95




ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



# GIPUZKOA

**Ekin.**

—  
Gipuzkoa  
oparoagoa  
izateko.

**Zaindu.**

—  
Pertsona guztiak eta  
horien ingurukoak  
zaintzen dituen.

**Bizi.**

—  
Ondo eta  
duin bizi  
daitez.



**GIPUZKOA**

Foru Aldundia

# “Hemingwayren kasuan ere, kondairek benetako istorioa estaltzen dute”

IÑAKI SAGARNA URZELAI • Historialaria



Bigarren Hezkuntzako irakaslea da lanbidez, baina uztailean Donostian eta Bilbon egingo diren *Ernest Hemingway eta Euskal Herria* kongresuko zuzendari tekniko lanetan ere badabil uneotan Iñaki Sagarna (Deba, 1995). 1954an Nobel saria irabazi zuen Ernest Hemingway idazle estatubatuarren bizitzari edota hark Euskal Herriarekin izan zuen loturari buruzko bestelako ekimen batzuetan ere parte hartu izan du 2019az geroztik.

**U**ztailaren 14tik 20ra bitartean, Donostiak eta Bilbok *Ernest Hemingway eta Euskal Herria* biltzarra hartuko dute; ekimena idazlearen obra eta bizitza ezagutarazi nahi duen Ernest Hemingway Society-k antolatu du, BasqueTour agentziaren laguntzarekin, eta 250 lagun baino gehiago bilduko ditu. Topaketak aitzakiatzat hartuta, AEBetako idazle eta kazetariaren obra eta bizitza ezagutzen dituen Iñaki Sagarna historialari debarra elkarrizketatu du *Berriketan*-ek.

## Nola laburbilduko zenuke jardunaldien mamia?

Finean, ia astebeteko kongresu akademiko bat da eta munduan sakabanatuta dauden idazle amerikarraren bueltako ikerlariak eta zaleak biltzea eta azken urteetan ikerkuntzan izan diren berrikuntzak eta aurkikuntzak gizarteratzea du xede. Horrez gain, saretzeko ere balio dute halako batzarrek, etorkizuneko ikerketa ildo ezberdinei begira. Gainera, bertaratzen direnek Nobel amerikarrak kongresua egiten den tokiarekin zuen harremana esploratzeko aukera izaten dute, eta kasu honetan Hemingwayek aipatutako Euskal Herriko leku

batzuk ezagutzera gonbidatuko ditugu. Interesa izanez gero, udarako plan interesgarria izan daiteke.

## Zer nolako ekintzak antolatuko dituzue?

Hitzaldiak egingo dira ia egunero; 50 bat pertsona izango ditugu beren ikerketak entzuleekin partekatzen. Nahiko kongresu handia da, 250-300 bat lagun mugituko ditu, eta atipikoa ere bai. Hizketaldiez gain, alderdi sozialak ere pisu handia du: irekiera ekitaldiko afarian, adibidez, bertsolariak ariko dira. Eta Hemingwayek Jai Alairekin izan zuen lotura dela eta, kongresukideek erakustaldi txiki batez ere gozatuko dute, besteak beste, Bilboko Deportibo frontoian. Jardueretan parte hartu ahal izateko, izena eman behar da kongresuan, eta horretarako beharrezkoa da Hemingway Society-ko kide izatea. Baina badago kongresura etorri ezin direnentzako doako jarduera bat ere: Donostia Kulturari esker, Aieteko kultur etxean *Hemingway eta Euskal Herria* erakusketa izango da, ekainaren 15etik irailaren 14ra bitartean.

## Aurten Donostian eta Bilbon egingo dira topaketak. Irizpide jakin batzuen arabera hautatzen da kokagunea?

Bi urtean behin lekuz aldatzen da. Tokiek idazlearen bizitzarekin eta obrarekin izan dezaketen loturaz harago,





kongresua egin ahal izateko proposamen bat aurkeztu behar izaten da. Gu, adibidez, biltzarra Genova-Rapallon egiteko proposamen baten aurka lehiatu ginen eta nahiko lehia gogorra izan zen, baina zorionez gure aukerak irabazi zuen. Idazlea Euskal Herrira etorri zeneko mendeurrena 2023an bete izana zengure aitzakia nagusia. Baina ez zen kongresua hona ekartzeko arrazoi bakarra, Donostia-Bilbon eta inguruetan makina bat aldiz izana baitzen idazlea; batez ere 1920 eta 30eko hamarkadan, baita 1950ekoan ere. Gainera, 1923tik 1961era Idahon, Kuban zein Manilan ere euskaldun ugariarekin harremanetan izan zen.

#### **Nolatan murgildu zara ekimen honetan?**

Kasualitatez bukatu nuen hau antolatzen. 2019an Idahoko Sun Valleyen egin nuen lan, Hemingway bizi izan zen azken etxean, bere buruaz beste egin zuen hartan. Objektuen katalogazio lan bat besterik ez nuela egingo uste nuen eta hara joan aurretik hasi nintzen idazlearen gainean zertxobait ikertzen. Idahora joan aurretik, Edorta Jimenezekin eta Javier Muñozekin harremanetan jarri nintzen, haiek BasqueTourrekin lanean zebiltzalako Hemingwayek Euskal Herriarekin

## **“Idahon nengoela, bertan bizi ziren euskaldunen historia ikertzen hasi nintzen, eta orduan ikusi nuen haietako askok harremana zutela idazlearekin”**

zituena harremanak ikertzen. Gero, han nengoela, bertan bizi ziren euskaldunen historia ikertzen hasi nintzen, eta orduan ikusi nuen haietako askok harremana zutela idazlearekin.

#### **Eta horrek sendotu egin zuen ikerketa?**

Ikerketa pixkanaka handituz eta itxura hartzen joan zen. Lan egiten nuen erakundeak (The Community Library) urtero Ketchumen antolatzen duen Annual Ernest Hemingway Idaho Seminar mintegi garrantzitsuan eman nuen aurkikuntzen berri. Nire berriketaldia gustuko izan zuen kongresura gonbidatuta joan zen hizlarietako batek, eta hark esan zidan Euskal Herrian



**“Ingelesa gailentzen den kongresu handi batean mahai-inguru bat euskara hutsean egiteak beste dimentsio bat ematen dio gure hizkuntzari”**

**“Boise (Idaho, AEB) diasporako toki ezagunenetarikoa dela esango nuke nik, erreferentea”**

ez zela aspaldian kongresurik egin. Hemingway Society-ko lehendakariarekin kontaktuan jarri ninduen eta hiruron artean honi forma ematen hasi ginen. Ideia BasqueTourreri helarazi eta erakunde horren laguntza lortu genuen. Eta azkenean, gauza batek bestera eraman eta abentura honi ekin nion. 2022. urtean Wyoming-Montanen izan zen kongresura joan nintzen, eta bertan hitzaldi bat emateaz gain, esperientzia hura gauzak nola antolatzen diren ikusteko ere baliatu nuen.

**Beraz, aurrez ere parte hartu izan duzu Hemingwayrekin lotutako bestelako ekimen batzuetan.**

Hiruzpalau hitzaldi eman ditut 2019az geroztik; Idahon lehena, eta ondoren Gernikako Museoa, Auritzen eta Iruñean idazlearen bisitaren mendeurrenaren harira egin ziren ekimenetan parte hartu nuen. Horrez gain, Edorta Jimenezek Gernikako Euskal Herria museo-arentzat komisariatatu zuen erakusketarako Idahori buruzko informazioa eman nuen, eta erakusketa Auritz eta Eibarrera eraman zenean, panel gehigarriak egin nituen. **Antolakuntza lanetan ez ezik, zuzenean ere parte hartuko duzu uztaileko jardunaldietan, ezta?**

Bai, hala da. Hainbat mahai-inguru moderatuko ditut, tartean euskaraz egingo den bakarra: Ibai Azurmendik Hemingwayren kontakizun labur bat Barojaren kontu labur batekin alderatuko du; Josu Jimenezek idazlearen

poesia batzuk euskaratu ditu eta horri buruz ariko da, eta Edorta Jimenezek Hemingway eta Gernikako bonbardaketaren arteko harremanak azalduko dizkigu. Beste mahai-inguru batean, Kirmen Uribe bere *Elkarrekin esnatzeko ordua*-ri buruz hitz egin eta pasarteren bat irakurriko du, eta hori gidatzen ere izango naiz, ingelesez eta euskaraz. Pozgarria da ia %100ean ingelesez hitz egingo den biltzar batean euskara entzun ahal izatea... Ingelesa gailentzen den kongresu handi batean mahai-inguru bat euskara hutsean egiteak beste dimentsio bat ematen dio gure hizkuntzari. Esan nahi du ikertzeko eta ikerketaren berri emateko hizkuntza bat ere badela euskara.

**Itzul gaitzen zure ikerketa esparrura, Iñaki. Zergatik erabakizenuen Hemingway bezalako artista bat ikertzea?**

Lehen aipatu bezala, nahiko kasualitatez hasi zen guztia, Idahon Historiako masterra egiten ari nintzela, hiru hilabeterako lan baten ondorioz. Ordutik, bestelako gauza batzuk egiten jarraitu dudan arren, Hemingway nire “denbora-pasako” ikerketa ildo bilakatu da. Artxibo batera noanean, beti begiratzen dut *Hemingway* izena. Askotan sorpresa ederrak aurkitu izan ditut...

**Zer erakarri edo harritu zintuen gehien haren bizitzaz?**

Izan zituen harremanak eta bere izenak duen pisua. Uste baino toki gehiagotan agertzen da. Arreta ipiniz



Jose Maria de Ucelay-ren 'Hemingway eta Duñabeitia' (1957) margolana. © ARTE EDERREN BILBOKO MUSEOA

gero, bere izena edonon dago: prentsan, liburuetan, historia liburuetan... Onerako edo txarrerako, gehiago edo gutxiago, guztiek ezagutzen duten izen bat da. Hemingway esateak irudi bat ekartzen dizu burura; gure kasuan, normalean Iruñean ardoz bustiriko bizar ileurdina duen aitona idazle hura da, ezer gehiago. Ikertzen hasi eta haren bizitza euskaldunetz josita zegoela ikusi nuen berehala. Ez ziren, gainera, ezezagunak; entzunda nituen pertsonaiak edota inguruan ezagutzen nuen jendearen senideak ziren. Idahon hiru hilabetez bizi izan nintzen emakume batekin gertatu zitzaidan, adibidez: haren aitak Hemingwayren eta haren laugarren emazte Mary Welshen arteko hainbat eskutitz zituen etxean gordeak... halako kontuak eta harremanak dira nire interesgune nagusia.


**Idahoko egonaldia aipatu duzu... Zalantzarik gabe, Euskal Herritik jende andana joan zen hara sasoi batean, eta euskal komunitate sendoa izaten jarraitzen du, ezta?** Uste dut Boise eta Idaho aipatzerakoan ia guztioi datorkigula burura Ameriketara bizi den euskal-amerikar komunitatea. Oraindik ere bizi-bizirik dirauen komunitatea da, Boisen bereziki nabaria dena: hiriarren erdi-erdian Basque Block handi bat dago, alde batetik Euskal Museoa dagoela eta ondoan Euskal Etxea. Bien parean Leku-ona izeneko euskal jatetxea dago

eta, hori gutxi balitz bezala, Euskal Museoaren beste aldean Gernika izeneko jatetxe batek ixten du blokea. Azken eraikin horren barruan Andueza frontoia dago eta aipatutako lau eraikinek osatzen duten plazan lauburuek, ikurrinek eta euskal kantek apaintzen dute zorua. Gainera, bost urtean behin ospatzen den euskal jaialdiak beste dimentsio bat ematen dio Boiseri. Diasporako toki ezagunenatarikoa dela esango nuke nik, erreferentea. Euskal komunitate handia izateaz gain, oso kontzentratua dago bertan.

**laz ehun urte bete ziren idazlea lehen aldiz Iruñera etorri zenetik; 1926an 'Fiesta: Eguzkia jaikitzen da' liburua idatzi zuen, eta ospe handia eman zien sanferminei. Baina agian askok ez dute jakingo Euskal Herriarekin bestelako harremanik ere izan zuela, ezta?**

Euskal Herrira makina bat aldiz etorri zen, 1923tik 1933ra bitartean batez ere; garai hartan ia-ia urtero pasa zen hemendik. Ondoren, 1950eko hamarkadara arte, Espainiako Gerra Zibila eta gerraostearengatik, ez zen Hegoaldera etorri, bitartean Iparraldean behin baino gehiagotan izan arren. 1950eko urteetan beste bost aldiz etorri zen bisitan. Gainera, Gerra Zibilaren ostean bizi izan zen bi tokietan, Idahon eta Kuban, makina bat euskaldunekin harremanetan izan zen. Kuban Jai Alaieko jokalariekin erlazio estua izan zuen, Felix Areitio





**“Ahaztu egiten zaigu 1920-30eko hamarkadan hemen zegoen Hemingway gazte hark idatzi zituela bere lanik onenak”**

**“Zoritxarrez, karikaturek gehiago saltzen dute, eta morbosagoak izan ohi dira”**

*Ermua* edo Patchi Ibarluzearekin, esaterako. Halaber, Andres Untzain apaizarekin edo Juan Duñabeitia marinelarekin ere sekulako harremana izan zuen; Duñabeitia itsasoan ez zegoenean idazlearen etxean bizi izan zen. Gainera, ikerketarekin aurrera nindoala, Duñabeitia eta Ibarluzea nire txikitako lagun senideak zirela jakin nuen... eta, hori gutxi balitz bezala, badirudi Deban ere izan zela.

#### **Deban ere izan zen, hortaz?**

Tauromakiari buruz egin zuen lanean (*Heriotza arratsean*) Deba aipatzen du. Dena den, Deban izan ordez, Beran (Nafarroa) 1924. urtean jazotako gertakizun batzuei buruz hitz egiten du kasu horretan. 1960an, aldiz, badirudi Juan Manuel Madinaveitia Madrilgo udatiarra hondartza ondoan kokatua zegoen Hotel Playan bisitatu zuela; Hemingwayren medikua zen idazlea Espainian zegoenean, eta Madinaveitia mediku onatiar ezagunaren semea zen Juan Manuel. Gerra Zibilaren garaian XII. Nazioarteko Brigadetako mediku zela ezagutu zuten elkar, eta hil arte lagunak izan ziren. Debara etortzen omen zen Juan Manuel eta egonaldi haietako batean gonbidatu zuen Hemingway berarekin egotera. Era berean, badakigu 1927ko uztailean idazleak Ignazio Zuloaga pintorea bisitatu zuela Santiagoetxen (Zumaia), Waldo Peirce margolariarekin batera.

**Asko hitz egin eta idatzi izan da Hemingwayri buruz, bere obra literarioaz eta bizitza pertsonalaz ere bai. Emakumeak, alkohola, depresioa... Halakoek zenbat dute mitotik eta zenbat egiatik?**

Hemingwayren historia mitoz osatua dago eta mito asko errealak izan dira. Sekulako depresioa eta alkoholismoa izan zuen, baina asko karikatuzatzen eta nabarmentzen da hori, gehienetan larregi. Gainera, bere bizitzako azken urteetako kontuak dira. Adibidez, hemen ezaguna den Hemingway 1959ko ileurdin ardozale festazalearekin lotzen dugu, baina Hemingway horrek ez zuen apenas idatzi. Ahaztu egiten zaigu 1920-30eko hamarkadan hemen zegoen Hemingway gazte hark idatzi zituela bere lanik onenak, eta eleberriena baino gehiago istorio laburren maisua izan zela. Eta hori ezezaguna da guretzat. Era berean, ez da hainbeste aipatzen Hemingway antifaxista ere izan zela; askotan inperialismo amerikarraren ikurtzat hartzen bada ere, Gerra Zibilean errepublikak nazioartean izan zuen lagun onenetako bat izan zen, diru ekarpen handia egin baitzuen. 1959-1960 urteetan Kubako iraultzaren alde lerratu zen publikoki *New York Times*-eko kazetari baten aurrean. Zoritxarrez, karikaturek gehiago saltzen dute, eta morbosagoak izan ohi dira. Hemingwayren kasuan ere, kondairek benetako istorioa estaltzen dute.



# 25 kultur jarduera barnebilduko ditu Gure Giroren egitarauak



Prest dute Gure Giroren laugarren ediziorako programazioa. Ekainaren 26an hasi eta sei astez luzatuko da askotariko jardueraz osatu duten egitaraua; musika, dantza, umorezko bakarrizketak, hitzaldiak eta haurrentzako pailazoak izango dira, besteak beste, tartean. Ekimen gehienak Kultur Elkartearen egingo diren arren, herriko beste hainbat txokotan ere izango dira jarduerak.

Gure Giroren egitarau osoa eta izen-emateak: [labur.eus/guregiro2024](http://labur.eus/guregiro2024)



**E**kainaren 26an Kultur Elkartearen *Marea gora* zikloaren baitan egingo den hitzaldi batekin abiatuko da aurtengo Gure Giro, eta abuztuaren 2an amaituko da, Ibil Bedi musika talde ezagunak zuzendutako karpantxo emango duen kontzertuarekin. Denbora-tarte horretan, beste behin ere, belaunaldi eta profil ezberdineko herritarrei zuzenduriko ekintza sorta oparoa izango da aukeran Deban; 25 jarduera egingo dira orotara, 18 egunetan banatuta.

Egitarauak dantza ikastaroak, bisita gidatuak, hitzaldiak, dokumental emanaldia, Jazzez Blai, umeentzako Porrotx eta Marimotots pailazoaren ikuskizuna, eta zuzeneko blues edo pop-rock kontzertuak izango ditu, besteak beste. Gainera, proposamen berriak eta nobedadeak ere izango dira aurtengo eskaintzan, hala nola *Barre Giro* umorezko stand up ikuskizunak edota binilo pintxada herrikoia.

Antolatzaileek azaldu dutenez, ekimen gehienak doakoak izango dira, baina ez guztiak. Bide batez, ohartarazi dute bisita gidatuetan parte hartzeko ezinbestekoa izango dela izena aldeztu aurretik ematea.

## Boluntarioak behar dituzte

Kultur Elkartearen, Jazzez Blai, Zuhatzeta-Kolore Anitz eta Debabarreneko Ikasten Esperientzia Eskolaren arteko elkarlanari esker gauzatuko da "herriko kultur eszena sartzeko helburuz" sortutako egitasmoaren laugarren edizioa. Eta Debako Udalaren, Danobaten, Hiru Uhinak Hotelaren eta Ondargain tabernaren babesa ere badu Gure Girok. Nolanahi ere, sustatzaileek antolakuntza lanetan jarduteko boluntarioak behar dituzte (laguntzeko prest daudenek Internet bidez eman dezakete izena).

## Bost hitzaldik osatuko dute Ikastenek antolatutako *Marea gora* zikloa



Debarreneneko Ikasten Esperientzia Eskolak *Marea gora* hitzaldi sorta dakar aurten ere Debara, Gure Giroren baitan. Bost saio izango dira guztira (asteazkenetan, 19:00etan) eta askotariko gaiak landuko dituzte bertan, esperientzia pertsonal eta profesional ezberdineko gonbidatuekin.

Ekainaren 26an, gure herriak itsasoarekin izandako loturaz mintzatuko da Alex Turrillas Aranzeta historia-zale debarra. Uztailaren 3an, Arantxa Urretabizkaia idazlea *Azken etxea* liburuaz eta zahartzaroaz ariko da. Hilaren 10erako, aldiz, Paco Etxeberria auzi mediku eta antropologoa gonbidatu dute, Madrilgo Cuelgamuros haraneko ikerketaz hitz egin dezan. Uztailaren 17an, Jesus Gutierrez historialaria ariko da jendaurrean, uda sasoi eta turismoa hizpide hartuta, eta hilaren 24an *Aita Mari* erreskate ontziaz jardungo dute Iñigo Mijangosek eta Amaia Iguaranek.

## Hiru ostegunez jarraian, stand up umorezko bakarrizketak *Barre Giro*-n



Stand up komediaren susperraldiaren erakusgarri izango dira Gure Giroren egitarauan aurten estreinakoz txertatu dituzten *Barre Giro* ikuskizunak. Hiru ostegunez jarraian, hain zuzen, Kultur Elkarteko aretoak euskarazko umorezko bakarrizketak hartuko ditu 20:30ean.

Gurean aski ezagunak diren hainbat aurpegi ikusiko ditugu agertokian, eta agian hain ezagunak ez diren beste batzuk ere bai: Getari Etxegaraik eta Asier Kortabarriak egingo dute lehen saioa, ekainaren 27an; Aiora Enparantza, Mitxel Martinez eta Beñat Iturbe ariko dira oholtzan bigarren hitzorduan, uztailaren 4an; eta Amaia Ruiz de Galarreta eta Asier Galarza izango dira azken saioko protagonistak, uztailaren 11n. Manex Astigarraga debarrak gidatuko ditu saio guztiak.

Internet bidez eros daitezke emanaldietara joateko sarrerak, bost euroan.

### EKAINAK 26 (ASTEAZKENA)

19:00 | **Marea gora - Hitzaldia** | Kultur Elkartea

Iztiar-Deba, una historia ligada al mar. Alex Turrillas Aranzeta.

### EKAINAK 27 (OSTEGUNA)

20:30 | **Barre Giro umorezko ikuskizuna** | Kultur Elkartea

Getari Etxegarai, Asier Kortabarria eta Manex Astigarraga.

Sarrera: 5€ | Salmenta: [labur.eus/barregiro1](http://labur.eus/barregiro1)

### EKAINAK 28 (OSTIRALA)

19:00 | **LGTBI Harrotasun Eguna** | Kultur Elkartea

*Mi pequeño gran samurai* dokumentalaren emanaldia eta hitzaldia Ekai Lersundiren gurasoekin.

Ondoren, emanaldi akustikoa: Hector Aldalur.

### UZTAILAK 2 (ASTEARTEA)

**Dantza ikastaroa** | Kultur Elkartea

11:30 | Koreografia solteak.

18:00 | Salsa, bachata eta txa-txa-txa.

### UZTAILAK 3 (ASTEAZKENA)

19:00 | **Marea gora - Hitzaldia** | Kultur Elkarteko aretoa

Zer ikasi eta zer desikasi zahartzaroaz. *Azken etxea*.

Arantxa Urretabizkaia.

### UZTAILAK 4 (OSTEGUNA)

17:00 | **Umeentzako ikuskizuna** | Aldats pilotalekua

Zorionak Marimotots (Porrotx eta Marimotots).

Sarrera: 6€ | Salmenta: [labur.eus/porrotxetamarimototsdeba](http://labur.eus/porrotxetamarimototsdeba)

Zuhatza Euskara Elkarteko bazkideek prezio berezia izango dute (4€). Informazio gehiago: [berriketan.eus/zuhatzakideak](http://berriketan.eus/zuhatzakideak)

20:30 | **Barre Giro umorezko ikuskizuna** | Kultur Elkartea

Aiora Enparantza, Mitxel Martinez, Beñat Iturbe eta Manex Astigarraga. Sarrera: 5€ | Salmenta: [labur.eus/barregiro2](http://labur.eus/barregiro2)

### UZTAILAK 6 (LARUNBATA)

11:00 | **Irteera gidatua: Santa Maria Eliza\*** | Plaza Zaharra

Alex Turrillas Aranzetak gidatuta.

### UZTAILAK 10 (ASTEAZKENA)

19:00 | **Marea gora - Hitzaldia** | Kultur Elkartea

*Investigación forense en el Valle de Cuelgamuros: entre lo muy difícil y lo imposible*. Paco Etxeberria.

### UZTAILAK 11 (OSTEGUNA)

20:30 | **Barre Giro umorezko ikuskizuna** | Kultur Elkartea

Amaia Ruiz de Galarreta, Asier Galarza eta Manex

Astigarraga. Sarrera: 5€ | Salmenta: [labur.eus/barregiro3](http://labur.eus/barregiro3)



## Porrotx eta Marimotots pailazoen ikuskizuna izango da Aldats pilotalekuan



Porrotx eta Marimotots pailazoek haurrei eta familiei eskainitako *Zorionak Marimotots* ikuskizuna egingo dute Deban uztailaren 4an; 18:00etan hasiko da saioa, Aldats pilotalekuan. Zuhatza-Kolore Anitzen ekimenez egingo da emanaldia eta sarrerak Internet bidez eros daitezke, sei euroan (Zuhatza elkarteko bazkideek bi euroko deskontua izango dute).

Marimototsen amaren heriotza abiapuntu hartuta, dolua lantzen duen ikuskizuna da, 2020ko azaroan estreinatu zuten *Amaren Intxaurreak* izenekoaren formatu egokitua. Nolanahi ere, oholtza gainean bakarrik egongo diren Porrotx eta Marimotots pailazoen emanaldian ez dira ohiko kantuek eta bestelakoak ere faltako, publikoaren gozamenerako. "Dolua igarota, ipuin kontari, kantari, dantzan eta jolasean ariko gara", aurreratu dute protagonistek.

## Ibil Bedi talde nafarrak itxiko du aurtengo egitaraua, abuztuaren 2an



Abuztuaren 2rako iragarrita dagoen musika kontzertuarekin emango zaio amaiera Gure Giroren egitarauari; Ibil Bedi talde nafarra ariko da zumardiko karpan, 22:00etatik aurrera. Kontzertua doan izango da, Zuhatza-Kolore Anitzen ekimenez.

Ibil Bedi musika taldea 2018an sortu zuten Irunberri, Erriberri, Zangoza eta Iruñeko bost lagunek (Ibai Osinaga, Amets Aranguren, Areta Senosiain, Eder Escalera eta Javier Larrañetak). Hiru disko atera dituzte, azkena iaz, *Goldea*.

Egiten duten musika pop estiloaren barruan kokatzen badute ere, ez diote beste musika estilo batzuetako elementuekin jokatzeko aukerari aterik ixten. Soinu garaikideak, *auto-tunea* eta sintetizadoreen soinu indartsuak melodia goxo eta hitz sakonekin uztartuz, haize freskoa ekarri dute euskarazko musikagintzara.

### UZTAILAK 13 (LARUNBATA)

10:00 | Irteera gidatua: *La otra historia de Sasiola\**  
Plaza Zaharretik  
Alex Turrillas Aranzetak gidatuta.

### UZTAILAK 17 (ASTEAZKENA)

19:00 | Marea gora - Hitzaldia | Kultur Elkarte  
*Historia del verano en Euskadi. Deba y la importancia del turismo.* Jesus Gutierrez.

22:00 | Kontzertua: Jazz Konboa eta Blues tailerra | Gaztetxea

### UZTAILAK 18 (OSTEGUNA)

19:30 | Blues kontzertua: Chris Corcoran Quartet  
Kultur Elkarte | *Pintxo-potea egongo da.*

### UZTAILAK 19 (OSTIRALA)

19:00 | Jazz kontzertua: Trezz | Kultur Elkarte  
21:30 | Jazz kontzertua | Ondargain taberna

### UZTAILAK 20 (LARUNBATA)

13:00 | Jazz kontzertua | Hiru Uhinak hotela  
20:00 | Jazz kontzertua: Roberto Nieva Quartet | Kultur Elkarte  
22:30 | Jazz kontzertua: The Megadeth Project | Kultur Elkarte

### UZTAILAK 21 (IGANDEA)

13:00 | Jazz kontzertua: Xahu | Kultur Elkarte  
19:00 | Jazz kontzertua: Tana Santana Quintet | Kultur Elkarte

### UZTAILAK 24 (ASTEAZKENA)

19:00 | Marea gora - Hitzaldia | Kultur Elkarte  
*Migración, frontera, mujer, juventud e infancia*  
Iñigo Mijangos eta Amaia Iguaran (Aita Mari).

### UZTAILAK 27 (LARUNBATA)

Binilo pintxada herrikoia | Kultur Elkarte  
12:30 | Bermut sesioa: blues, rock, soul, ska, reggae...  
19:00 | Arratsaldeko sesioa: rock-and-roll, punk, metal...

### ABUZTUAK 2 (LARUNBATA)

22:00 | Pop-rock kontzertua: Ibil Bedi | Zumardiko karpa

### OHARRAK

Izartxoak (\*) duten ekimenetan parte hartzeko ezinbestekoa da aldez aurretik izena ematea. Informazio guztia ondorengo estekan dago eskuragarri: [labur.eus/guregiro2024](http://labur.eus/guregiro2024)



# Ekaina / Uztaila

## EKA. 21 (OSTIRALA)

### URAREN PARKEA

16:00 Simon Berasaluze plaza.

### SINADURA BILKETA

18:00 Tauromakiaren ondare kulturalaren legea indargabetzeko. Foruen Plaza.

### MAHAI-INGURUA

18:00 'LGTBIQ+', hemen gaude'. Burugorri gaina.

### KALEAN KANTUZ

19:30 Udaletxeko arkupeak.

### JAIALDIA: MUSIKA ESKOLA

21:30 Kurtso amaierako emanaldia. Zumardia.

## EKA. 22-23

### ELKARTASUN AZOKA

11:00-15:00 Ukrainaren alde. Udaletxeko arkupeak.

## EKA. 22 (LARUNBATA)

### IKUSKIZUNA

22:00 'Geure(r)a'. Aldats.

## EKA. 23 (IGANDEA)

### ZINEMA

19:00 'Las dos caras de la justicia'. Kultur Elkarteak.

### SAN JUAN BEZPERA

22:00 Sua. Foruen Plaza.  
**Ondoren**, erromeria.

## EKA. 24 (ASTELEHENA)

### SAN JUAN EGUNA

11:00 Meza, bertsolariak, herri kirolen erakustaldia. Santa Katalina basiliza.

## EKA. 26-ABU. 2

### GURE GIRO

Egitarau osoa ale honetako 25-27 orrialdeetan.

## EKA. 28 (OSTIRALA)

### MANIFESTAZIOA

18:00 LGTBIQ+ Harrotasun Eguna. Itziarko Bikain jatetxetik.

### SAN PEDRO BEZPERA

22:00 Zahagi erretzea. Plaza Zaharra.

## EKA. 29 (LARUNBATA)

### FLYSCH BELTZA

11:30 Mutrikuko portua. Informazio gehiago ale honetako 13. orrialdean.

### JAIALDIA

19:00 'Dantz Point'. Zumardiko kioskoa.

## EKA. 30 (IGANDEA)

### ZINEMA

19:00 'Saben aquell'. Kultur Elkarteak.

## UZT. 1 (ASTELEHENA)

### PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

## UZT. 3 (ASTEAZKENA)

### ASTEAZKEN AKUSTIKOAK

22:00 Gaztetxea.

## UZT. 5 (OSTIRALA)

### ITURRI ONDOAN

22:00 Antzerkia: 'Ali Baba'. Plaza Zaharra.



## UZT. 6 (LARUNBATA)

### KONTZERTUA

22:30 Debako Musika Banda. Zumardiko karpa.

## UZT. 7 (IGANDEA)

### KONTZERTUA

19:00 Aitzuri abesbatza eta Amaia Zipitria. Elizako klaustroa.

## UZT. 10 (ASTEAZKENA)

### ASTEAZKEN AKUSTIKOAK

22:00 Gaztetxea.

## UZT. 11 (OSTEGUNA)

### IRTEERA

Iruñeko sanferminetara, egun osoz. Arbil elkartearen ekimenez.

## UZT. 12 (OSTIRALA)

### ITURRI ONDOAN

22:00 'Begiradak' ikuskizuna. Plaza Zaharra.

## UZT. 15 (ASTELEHENA)

### PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

## UZT. 17 (ASTEAZKENA)

### ASTEAZKEN AKUSTIKOAK

22:00 Gaztetxea.

## MARGO ERAKUSKETA

Maria Josefa del Hierro. Agirre Jauregiko erakusketa gela.

**Eka. 21, ostirala** (18:30-20:30).

**Eka. 22, larunbata** (12:30-14:30 / 18:30-20:30).

**Eka. 23, igandea** (12:30-14:30).

## LEHIAKETA

**San Roke jaiak iragartzeko kartel lehiaketa.** Ekainaren

27a da lanak aurkezteko azken

eguna. Informazio gehiago:

[berriketan.eus](http://berriketan.eus) atarian.



### ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

### BURGOA

Ekainak 28, 29, 30 / Uztailak 8, 9, 10, 11.

### ZALDUEGI

Uztailak 12, 13, 14, 22, 23, 24, 25.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik.

Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

### DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI 669 26 22 01

BURGOA 667 33 88 90

Larunbat goizetan beti bat irekita:

BURGOA

Ekainak 22 eta 29 / Uztailak 19 eta 26

ZALDUEGI

Uztailak 5 eta 12

Jarraitu gaitzazu!



berriketan.eus  
Zuhatza Euskara Elkartea



**IRAGARRI ZURE EKIMENA**

Ekimenen bat iragarri nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan uztailearen 8a baino lehen.  
berriketan@zuhatza.com | 943 19 13 83

KUTXA  
FUNDA  
ZIOA

Gipuzkoa mugitu,  
Gipuzkoa sentituz.

Batzen gaituenak,  
mugitzen gaitu.

Ezagutu Kutxa Fundazio berria.  
[www.kutxafundazioa.eus/garaiberribat](http://www.kutxafundazioa.eus/garaiberribat)

# Deba

Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20  
20820 Deba, Gipuzkoa

info@debaklinika.com  
T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra  
Kirurgia  
Implanteak  
Ortodontzia tradizionala  
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)  
Haurren odontologia

\* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

Uzuri

optika audio

RPS: 183/12

PILARIK GABEKO  
AUDIFONOAK

PROBATU  
HILABETEZ DOAN

Ostolaza kalea 7,  
20820 Deba  
Tel: 943 19 21 92



**BA AL ZENEKIEN...**

**...Joxe Antonio Mugicak eta Josemari Iparraguirrek apustu ikusgarri bat jokatu zutela orain 42 urte?**

Bideoz grabatu zuten 1982ko maiatzaren 27an Deban jokatutako txirringularitza apustu sonatua. Joxe Antonio Mugica, Josemari Iparraguirre eta hainbat laguneren arteko apustua izan zen (gehienak Amaikak Bateko zuzendaritzako kideak ziren); erronka orduko Guria tabernan hitzartu zuten, eta Urgain jatetxean afari bat ordaintzea zegoen jokoan. Bizikletan egin beharreko ibilbidea hauxe zen: Debatik Mendarora eta handik berriz ere Debara, zumardian jarri baitzuten helmuga.

Protagonistek oso txirrindu ezberdinak hautatu zituzten erronkarako: Mugicak kaleko bizikleta bat erabili zuen, gurpil finekin eta eskuleku zuzenarekin; Iparraguirrek, berriz, BH txirrindu tolesgarri bat. Bi bizikleten gurpilen diametroa erabat desberdina izanik,



**Bideoa ikusi:**  
[labur.eus/1982apustua](http://labur.eus/1982apustua)

Iparraguirrek askoz pedalkada gehiago eman behar izan zituen ibilbide bera egiteko. Lasterketaren zatirik handienean bizikleta txikiak hartu zuen aurrea, baina itzuleran, Errota Zar futbol zelaiaren parean, Mugicak eraso aho eta lehen postuan helmugaratzea lortu zuen.

Ikusmin handia sortu zuen apustuak. Bitxikeria gisa, Anes Arrindak ordu-erdi aurreratu zuen errosarioa, herritarrek erronka ikusteko aukera izan zezaten.

**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

**k**  
**kutxabank**

**Berriketan .eus**

parte hartu  
parte izan

**Mikel**  
**ITURGINTZA**

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO
- ETA BERRIZTAGARRIAK

Hondartza 10 behea,  
20820 Deba

T. 943 191 774  
M. 699 975 206

info@mikeliturgintza.eus

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27  
943 19 14 47  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

*Calbeton*

JATETXEA

**Agustín**  
**Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platerra**  
**arrain eta barazkitan**

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ENGLISH**  
**SQUARE**

SCHOOL  
OF ENGLISH

**2024/25 ikasturteko**  
**matrikulazioa**  
**zabalik**

Sokagin kalea 12, DEBA  
648 268 206  
info@english-square.net



**ELGOIBAR  
BHI**

Artistiko musikala  
Osasun-zientziak  
Zientifiko-teknikoa  
Humanitateak  
Gizarte zientziak

**2024-2025  
ikasturtea**  
Batxilergoko  
matrikulazio epea:  
**ekainaren 17tik**  
**uztailaren 2ra arte**



📞 943 89 93 16

🌐 [www.elgoibarbhi.eus](http://www.elgoibarbhi.eus)

✉️ [013431aa@hezkuntza.net](mailto:013431aa@hezkuntza.net)





CONSERVAS

**YURRITA**

GASTRONOMIKA

1867

## BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALEN ZUZENKO ETA ONLINE SALMENTA

### *Produktu berriak*

Panko  
kroketak



Gildak




🕒 Zuzeneko salmentaren udako ordutegia:  
Astelehenetik-ostiralera: 9:00-18:30 | Larunbatak: 10:00-14:00

🛒 Online salmenta: [www.tiendayurrita.com](http://www.tiendayurrita.com)

sarean edota dendan erosteagatik

# *%20ko deskontua*

Zuzeneko salmentan: 50€ tik gorako erosketetan, uztaila eta abuztuan erabilgarri  
Online salmentan: 50€ tik gorako erosketetan ondorengo kupoia sartuz: #BERRILAGUN



☎ (+34) 627 38 46 45

@ pedidos@yurritagroup.com

📍 Casa Mauleon Etxea